

# **Euskararen erabileraren normalizaziorako III plangintzaldia irakaskuntzaren arloan**

## **Abiapunturako oinarriak**

**Euskara Batzordearen barne-agiria**

Leioa, 2003.eko martxoaren 5a

Euskara Batzordeak, irakaskuntzaren arloko III plangintzaldirako oinarritzko ekimen bezala, II Unibertsitate Planean sartu behar den kontratu-programa bat prestatzeari ekiten dio, honako irizpide eta ildo nagusi hauekin:

1. 2004-2007 ekitaldi ekonomikoetan garatzeko plangintza da. Beraz, 2004/05, 2005/06 eta 2006/07 ikasturteak hartzen dira kontuan.
2. Euskarazko irakaskuntzaren kalitatean aurrera egiteko, irakasle euskaldunen lan-baldintzen hobetzea lehenetsi du Batzordeak. Leheneste hau gauzatzen da, batetik, planak eratzeko metodo eta egutegian, arazo honi aurre egiteko beharrak ezer baino lehenago aztertuko baitira, eta bestetik, beharrezkotzat joko diren baliabideen banaketan.
3. Planen prestatzea lau alditan burutuko da:
  1. Irakasle elebidunen lan-baldintzak (irakaskuntzaren kalitatea) hobetzeko ekimenak proposatzea, balioestea, adostea.
  2. Eskaintza handitzeko ekimenak proposatzea, balioestea, adostea.
  3. Ikastegi bakoitzean, giza-baliabide berrien sorburua eta inkorporazioa zehaztea.
  4. Inkorporazioen eta birziklatzeko liberazioen egutegia zehaztea.
4. Lehen aldirako irizpide nagusiak hauek dira:
  1. Kontuan hartuta II Euskararen Erabileraren Normalizazio Planean Gobernu Batzarrak onartu zituen irakats-zamari buruzko irizpideak, 8 orduko arduraldiko kontratua duten irakasleen (unibertsitateko titularrak eta irakasle lagunak, katedradunak, eta gainontzeko baliokideak) irakats-zama, 1. eta 2. zikloko irakaskuntzan, 21 kreditu baino gehiago ez izateko ahalegina egingo da.
  2. Kontutan hartuta, batetik, Unibertsitateko irakasleen lan-baldintzei buruz indarrean dauden akordioak, gomendioak eta xedapenak, eta, bestetik, aurreko puntuan zehaztutako irizpideekiko erabaki orekatuak hartzeko asmoa eta betebeharra, 12 orduko arduraldiko kontratua duten irakasleen (unibertsitate eskolako titularrak eta irakasle lagunak, eta hauen baliokideak) irakats-zama 30 kreditu baino gehiago ez izateko ahalegina egingo da.
  3. Titulazio bakoitzeko ikasketa plana kontuan hartuta, irakasle bakoitzak eman behar dituen enborrezko eta halabeharrezko irakasgaien kopurua mugatzeko



ahalegina egingo da. Egitura bereko titulazioen artean irizpideen homogeneitatea bilatuko da.

4. Erreferentzia bezala, beharrak neurtzerakoan, 2002/03 ikasturteko irakats-zama hartuko da, bai eta sailen barruko zamaren banaketa ere.
5. Arduraldi partzialeko kontratuen luzapena bilatuko da, kontsiderazio akademikoek hala eskatzen dutenean.
5. Bigarren aldiari begira, hau erabakitzen du Batzordeak:
  1. Lehen aldian proposatutako neurriek ekarriko luketen eskaintza berria kontuan hartuko da.
  2. Euskara Errektoreordeak aurtengo ikasle eta irakasleen kopuruen datuak prestatuko ditu, campuska eta ikastegika, hala behar izanez gero, erreferentzia bezala erabiliak izan daitezzen balizko baliabide berrien banaketan.
6. Lehen aldiko lanak burutzeko, egutegi hau onartzen da:

<b>Ikastegietan.</b> ➤ Ikastegi bakoitzak, Batzordeak erabakitako formatoan lehen proposamena eginda duenean, campuseko zuzendariari bidaliko dio. ➤ Campuseko zuzendarien ardura izango da informazio honen zabaltzea eta datuen egiaztatzea.	<b>03/28 arte</b>
<b>Campusetan</b> Campuseko bileran irizpideen eta proposamenen homogeneitatea bilatuko da, Euskara Batzordera eraman aurretik.	<b>04/15 arte</b>
<b>Euskara Batzordea</b>	<b>04/16</b>